

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Hutsen zuzenketa, honako iragarki honena: 2026/2204 iragarkia, ALHAOren 85. zk., 2026ko uztailaren 27koa, zeinaren bidez zuzentzen baitira “Autonomoentzako txeketa, 2025. urtea” izeneko udal-laguntzen deialdi publikoaren bigarren ebazpenean atzemandako akatsak

I. 2025eko martxoaren 21ean onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrek “Autonomoentzako txeketa, 2025. urtea” izeneko dirulaguntzen udal programaren deialdi publikoa eta oinarriak (2025eko apirilaren 25eko ALHAO, 46. zenbakia), konkurrentzia sinplearen prozeduraren bidez izapidetzeko. Halaber, ondoren, oinarri horien akatsen zuzenketa argitaratu zen (2025eko uztailaren 18ko ALHAO, 81. zk.).

II. 2025eko azaroaren 7an, deialdi horren lehen ebazpena eman du Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak. Ebazpen honek 2025eko irailaren 8ra arte jasotako eskabideak hartzen ditu, deialdiaren 12. oinarrian xedatutakoari jarraikiz (2025eko azaroaren 19ko ALHAO, 132. zenbakia).

III. 2026ko ekainaren 30ean, deialdi horren bigarrena ebazpena eman du Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak; ebazpen horrek 2025eko irailaren 9tik 2025eko abenduaren 12ra —eskabideak aurkezteko epearen azken eguna— bitartean jasotako eskabideak hartzen zituen (2026ko uztailaren 27ko ALHAO, 85. zenbakia).

IV. Akats bat dago 2026ko ekainaren 30eko bigarren ebazpenean ukatutako eskabideei dagokien taulan jasotako datuetan, eta, horregatik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluari jarraikiz, deialdiaren oinarriak zuzentzea proposatzen da, honakoei dagokienez:

Ebazpenaren bigarren atalean

Honela dioen lekuan:

62	2025645570	72733967Z	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko abenduaren 13a baino lehen
----	------------	-----------	---

Honela behar du:

62	2025645570	72733967Z	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko abenduaren 13a baino lehen
----	------------	-----------	---

V. Aipaturiko 109.2 artikulua akatsak zuzentzeko mekanismo bat aurreikusten du eta hura aplikatu ahal izateko bete behar diren betekizunak jurisprudenzia-doktrinaren bidez ezarri dira. Hartara, adierazgarria da Auzitegi Gorenak 2006ko otsailaren 15ean emandako epaia (RJ 2006/1754), hau baitio:

“Sala honen jurisprudenziak, zioak azaltzen duen moduan, akats materialaren interpretazio bat egiten du, honela laburbil daitekeena: errakuntza materialak edo egitezko errakuntzak nabarrena, agerikoa, eztaba daezina eta begi bistakoa izan behar du bere horretan, besterik arrazoitzeko beharrik gabe, eta prima facie geratu behar du agerian; zuzenbideko errakuntzak, berriz, kalifikazio juridikoaren izaera du, eta horretan oinarritutako adierazpena dakar segidan. Horrenbestez, errakuntza materialak edo egitezko errakuntzak zuzentzeko prozedura-mekanismoa aplikatu ahal

izateko, zirkunstantzia hauek gertatu behar dira, funtsean: oinarrizko okerrak izatea (izenak, datak, eragiketa aritmetikoak edo dokumentuen transkripzioak); akatsa administrazio-dosierrean jasota dauden datuetatik soilik ondorioztatzea; nabarmena eta begi bistakoa izatea, aplikatu behar diren arau juridikoak interpretatzeko beharrik gabe; administrazio-egintza irmo eta onartuak ofizioz ez berrikustea; egintzaren zentzuan funtsezko aldaketarik ez gertatzea (izan ere, antzemateko balorazio-judizioa beharrezkoa bada edo kalifikazio juridikoa eskatzen badu, ez da errakuntza materiala); administrazio-egintzaren irauteari kalterik ez egitea, hots, ez dezala egintza baliogabetzea edo errebokatzea ekar eskubide subjektiboak sortzen dituen heinean, egintza berria gertatzen delarik oinarri ezberdinen gainean eta eragindakoak behar diren bermeak izan gabe —zuzentzeko administrazio-egintzak zuzendutakoak zuen xedapen, substantzia eta ebazpen eduki berbera azaldu behar baitu—, eta ofizioz zuzentzeko ahalmenaren aitzakiaz baliatuz, ez dadila benetako zuzenketa ezkatu; eta irizpide ahalik eta murritzailleenaz aplikatzea”.

Kasu horretan, eskatzaileetako baten NAN zenbakia okerra da. Kontuan hartuta 6.b oinarria ez betetzeagatik ukatutako eskabideetako bat dela, NAN zenbakiaren zuzenketa horrek ez du eraginik hirugarrenen aurrean, beraz, aipatutako akatsa zuzendu behar da eta zuzenketa udalaren webgunean eta ALHAOn bertan txertatu.

Tokiko Gobernu Batzarrak du dirulaguntzak emateko eskumena, haren egitekoa baita ekonomi kudeaketa eta, beraz, Dirulaguntzen Estrategi Plana bideratzea, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 127 artikuluko 127.1.g) eta 2. ataletan eta Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 8.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik. Deialdian bertan ezarritako prozeduraren arabera, Tokiko Gobernu Batzarra da eskabideak ebazteko organo eskuduna, eskumen hori Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera (12. oinarria).

Horren haritik, deialdian ezarritako prozeduraren arabera (12. oinarria), Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzarrak deialdia onesteko emandako 2025eko martxoaren 21eko erabakia dela medio, ebazpen hau eman du:

EBAZPENA

Lehenengoa. Ofizioz zuzentzea Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak emandako bigarren ebazpena, 2026ko ekainaren 30ekoa (2025eko azaroaren 19ko ALHAO, 132. zk.), honakoari dagokionez:

Ebazpenaren bigarren atalean

Honela dioen lekuan:

62	2025645570	72723967Z	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko abenduaren 13a baino lehen
----	------------	-----------	---

Honela behar du:

62	2025645570	72723967Z	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko abenduaren 13a baino lehen
----	------------	-----------	---

Bigarrena. Hutsen zuzenketari buruzko ebazpen honetan xedatutakoa Udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratzea,

Hirugarrena. Erabaki honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsua Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertze errekurtsua espresuki edo presuntzioz ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen

espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera Administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.”

Vitoria-Gasteizen, 2026ko irailaren 2an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkaria*
MARÍA NANCLARES CABALLERO